Zangoza / 2021

# KULTUR AGENDA

## abendua



Ayuntamiento de Sangüesa/Zangoza

PALACIO VALLESANTORO

Nafarroako Gobernua

NAFARROAKO ANTZOKI SAREA

## Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxea

**Kultura-zerbitzuaren arreta ordutegia:** astelehenetan 09.30etik 14:00etara eta asteartetik ostiralera 9:30etik 14:00etara eta 18:00etatik 21:00etara.

**Erakusketa Aretoetako Ordutegia:** aasteartetik larunbatera, 11.30etik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara. Igande eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara.

**Helbidea:** Alfontso Borrokalaria Karrika 20. Tfnoa: 948 870 251.

**Gonbidapenak hartzea:** pertsona eta jarduera bakoitzeko gehienez 4 sarrera jaso ahal izanen dira. Sarrerak ez dira zenbakidunak eta ikusleak iritsiera-ordenaren arabera eseriko dira. Gonbidapenak **abenduaren 1etik aurrera** jaso ahal izanen dira Kultura-etxean asteartetik ostiralera 12: 00etatik 14: 00etara eta 19: 00etatik 21: 00etara, 948 870251 telefonora deituz edo posta elektronikoz infocultura@sanguesa.es helbidean.

Abenduaren 24an (arratsaldez), 25ean eta 31n (arratsaldez) Kultura-etxea itxita egonen da.

Kultura-agenda posta elektronikotik jaso nahi baduzu, helbide honetara eska dezakezu: infocultura@sanguesa.es. Facebooken, Instagramen eta www.sanguesacultura.es web-orrian gure kultura-agendari segi diezaiokezu.

www.facebook.com/culturasanguesa www.instagram/com/culturasanguesa

## Karmengo Entzunaretoa

**Aldez aurreko salmenta: Abenduaren 1etik aitzina** Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxean, asteartetik ostiralera, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara, eta Internetetik eguneko 24 orduetan www.sanguesacultura.es eta www.sanguesa.es web-orrien bidez. **Argibide Telefonoa:** 948 870 251.

**Salmenta txartel-leihatilan antzezpen egunetan:** Karmengo Entzunaretoko txartel-leihatila zabalik egonen da (sarrerarik izanez gero), 19:00etatik 19:30era helduen saioetarako eta 17:00etatik 17:30era haur eta sendienetarako.

Ikuskizun guztietarako sarrera gehienezko kopurua laukoa izanen da lagun eta ikuskizun bakoitzeko. Ez dira onartuko telefonoz eginiko erreserbak. Behin hartuz gero, ez da aldaketarik, ezta itzultzerik ere onartuko

Ikuskikunaren etena sarreren zenbatekoa itzultzeko kausa bakarra izango da.

**Beherapenak Gazte txartelarekin:** 14 eta 30 urte bitartekoa bazara, hala adierazten den saioetan beherapenez gozatu ahal izanen zara gazte txartela erakutsiz.

**ENTZUMENA HOBETZEKO ANTZERKI IRISGARRIA**
Karmengo Entzunaretoak badauka begizta magnetikoko sistema bat inguruko hotsa kendu ahal izateko. Hartara, entzumen-arazoak dituzten lagunek ikuskizunez hobeki gozatzen ahal dira. ERNE! sistema hau audiofonoa erabiltzen dutenek ez ezik ongi entzuten ez dutenek ere erabiltzen ahal dute inolako aparaturik eraman ez arren.
Bi kasuetan entzungailua edo begizta aretoko langileei eskatu behar zaizkie.

**ANTZERKI IRISGARRIA MUGIKORTASUN MURRIZTUA DUTEN LAGUNENDAKO**
Karmengo Entzunaretoak mugikortasun murriztua duten lagunendako gune bat gordetzen du. Eserleku hauetako bat hartu behar bada edo erreserba hau egiteko laguntza behar baduzue, jarri harremanetan Kultura-zerbitzuarekin infocultura@sanguesa.es posta elektronikoan edo deitu 948870251 telefonora.

Zangozako Udalak ez du bere gain ardurarik hartzen, aldatzen diren edo betetzen ez diren ekitaldiengatik, baldin eta hauek egitarau honetan ez badira aditzera eman. Datuak babesteko legea www.sanguesa.es webgunean kontsulta ditzakezu.

D.L.: NA 1735-2012

aurkibide kronologikoa

Zangoza / 2021

# KULTUR AGENDA

## abendua







| | | | |
|---|---|---|---|
| 1 | Az | Erakusketa "La Banda: 125 años de historia" (abenduaren 12a bitarte) | 4. orr. |
| | Az | Erakusketa "Consecuencias sociales de la Covid 19 en países del Sur" (abenduaren 13a bitarte) | 4. orr. |
| | Az | Txotxongilo eta itzal euskarazko tailerrak | 8. orr. |
| 2 | Og | | 4. orr. |
| **3** | Os | Dianak. Zangozako Gaiteroak | 9. orr. |
| 4 | La | Musika. "Pies en tierra, oinak lurrean" | 5. orr. |
| **5** | Ig | | |
| **6** | Al | | |
| 7 | As | Zinema. "¡Scooby!"" | 7. orr. |
| **8** | Az | | |
| 9 | Og | | |
| 10 | Os | "Zangotzarra" kultura-aldizkariaren aurkezpena | 9. orr. |
| 11 | La | Poesia eta musika errezitaldia. "Coplas del alma" | 6. orr. |
| **12** | Ig | Hiri-dantza. "Hipstory" | 6. orr. |
| 13 | Al | Musia-eskolako ikasleen kontzertua | 9. orr. |
| 14 | As | Ipuin-kontalaria. "Cuentos contra las cuerdas" (gaztelaniaz) | 8. orr. |
| 15 | Az | Ipuin-kontalaria. "Plateraren eta plateraren artean, ipuinak barrura" (euskaraz) | 8. orr. |
| 16 | Og | Erakusketa. "Olentzerok 50 urte" (urtarrilaren 9a bitarte) | 4. orr. |
| | Og | Eguberriko haur-lanen erakusketa (urtarrilaren 9a bitarte) | 5. orr. |
| | Og | Zangozako Musika Eskolako Banda Txikiaren, Big-Banden eta Orkestraren Eguberriko Kontzertua | 9. orr. |
| 17 | Os | Musika Eskolaren eta Udal Banda Elkartearen Gabon-kanta kalejira | 9. orr. |
| 18 | La | Nora Abesbatzaren kontzertua. Eguberriko Meza | 10. orr. |
| **19** | Ig | Familia Antzerkia. "Pirados en la isla del tesoro" | 7. orr. |
| 20 | Al | | |
| 21 | As | | |
| 22 | Az | | |
| 23 | Og | "El Belén Tradicional en Navarra" dokumentalaren proiekzioa eta jaiotzaren jatorriei buruzko hitzaldia | 10. orr. |
| 24 | Os | Olentzero | 10. orr. |
| | Os | Jaiotza bedeinkatzea eta irekitzea | 10. orr. |
| **25** | La | | |
| **26** | Ig | Gabonetako bermut musikala. Kalejira | 10. orr. |
| 27 | Al | | |
| 28 | As | Ipuin-kontalaria. "Pelea de bolas de nieve" (gaztelaniaz) | 8. orr. |
| 29 | Az | Txotxongiloen antzerkia. "Gorgorito y la isla de Rosalinda" | 7. orr. |
| 30 | Og | | 4. orr. |
| 31 | Os | | |

Azaleko irudia: "Hipstory".

# Erakusketak




## "LA BANDA: 125 AÑOS DE HISTORIA"

### ABENDUAREN 12RA ARTE

Erakusketak Zangozako Udal-bandaren ibilbidea erakusten du, Udal-banda sortu zenez geroztik kultura-elkarte gisa gaur egun arte. Ehun urtetik gorako instrumentuen, dokumentuen eta argazki-materialaren bidez, taldearen bilakaera islatu nahi du, taldearen historiako une nabarmenak errepasatuz.

**Laguntzailea:** Nafarroako Gobernua.

**Lekua:** Zangozako Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxeko Erakusketa Aretoa.

**Antolatzailea:** Zangozako Udal-banda Elkartea.



## "CONSECUENCIAS SOCIALES DE LA COVID 19 EN PAÍSES DEL SUR"

### ABENDUAREN 13RA ARTE

Erakusketa honen bidez, Fabre Fundazioak herritarren begirada zabaldu nahi du COVID krisiaren aurrean, gogoraraziz egoera hori modu globalean gertatzen ari dela, herrialde bakoitzean eragin desberdina duen errealitate bera, genero-ikuspegitik bizitzen ari diren gizarte-ondorioei aipamen berezia eginez.

**Lekua:** Zangozako Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxeko Ezkaratzea.

**Antolatzailea:** Zangozako Udalaren Gizarte Gaietako Batzordea.




## "OLENTZEROK 50 URTE"

### ABENDUAREN 16TIK URTARRILAREN 9RA

Aurten gure Olentzeroren urtebetetzea da! 50 urte igaro dira Zangozako talde batek ikazkin maitagarria lehenengoz Zangozako kaleetatik atera zuenetik. Ordudanik ilusioz bete ditu, abenduaren 24ko gauean, txikiak eta ez hain txikiak.

Hori ospatzeko argazki erakusketa antolatu dugu, 50 urte hauetan Zangozan Olentzerok izan duen ibilbidea gogoratzeko.

**Lekua:** Zangozako Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxeko Erakusketa Aretoa.

**Antolatzailea:** Zangozako Ikastola.

**Laguntzailea:** Nafarroako Gobernua.

# Erakusketak



**EGUBERRIKO HAUR-LANEN ERAKUSKETA**

**ABENDUAREN 16TIK URTARRILAREN 9RA**

**Lekua:** Zangozako Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxeko bigarren solairuko Erakusketa Aretoa.

**Laguntzaileak:** Otik 3 urtera bitarteko Zentroa, Luis Gil Ikastetxe Publikoa, Zangozako Ikastola eta Luna Haur-zentroa.

**Erakusketa Aretoko ordutegia:** Asteartetik larunbatera, 11:30etik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara. Igande eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara.

# Arte Eszenikoak

## Karmengo entzunaretoan





**MUSIKA**

**"Pies en tierra, oinak lurrean"**

THE LYRICAL VIEW

**LARUNBATEAN, ABENDUAK 4**

**Interpretatzaileak:** Saioa Goñi, Carolina Luquin, Imanol Resano, Álvaro Blasco, Daniel Sádaba, Mario Oroz; María Fernández, Ignacio García, Aingeru Otxotorena.

"Pies en tierra, oinak lurrean" , estetika eszenikoa zainduz zuzeneko musika eta ikus-entzunezko arteak uztartzen dituen ikuskizuna da. Errepertorioa euskal-nafar tradizioko pieza sorta batek osatzen du, eta bertako abeslari gazte talde batek interpretatzen du, haietako bat Zangozakoa.

**Ikusleak:** Gazteak eta helduak.
**Iraupena:** 60 minutu.
**Ordua:** 20:00.
**Aldez aurreko sarrerak:** 8 €.
**Txartel-leihatilako sarrerak:** 10 €.
**Sarrerak gazte txartelarekin:** 5 €. Bai entzunaretoan, bai interneten bidez erosita, gazte txartela aurkeztu beharko da txartel-leihatilan.
**Laguntzaileak:** Nafarroako Antzoki Sarea Elkartea (NAS) eta Nafarroako Gobernua.

# Arte Eszenikoak
## Karmengo entzunaretoan





### POESIA ETA MUSIKA ERREZITALDIA
**"Coplas del alma"**

EMILIO GUTIÉRREZ CABA / PRODUCCIONES LASTRA

**LARUNBATEAN, ABENDUAK 11**

**Interpretatzaileak:** Emilio Gutiérrez Caba, Luis Santana, baritonoa, José María Berdejo, pianoa.
"Coplas del Alma", San Juan de la Cruzen poema bati izenburua ematen dion bertsoa, espainiar literaturako egile handien ibilbidea da – subjektiboa eta arbitrarioa, ez akademikoa – XVI. mendetik gaur egunera arte.Víctor Carbajoren hondoko pianoarekin, Emilio Gutiérrez Caba aktorea poemak bata bestearen atzetik errezitatzen ditu, Luis Santana baritonoak bertsoekin batera egilearen eta garaiaren arabera aukeratutako abestiak jotzen dituen bitartean.

**Ikusleak:** Gazteak eta helduak. **Iraupena:** 75 minutu.
**Ordua:** 20:00.
**Aldez aurreko sarrerak:** 8 €.
**Txartel-leihatilako sarrerak:** 10 €.
**Sarrerak gazte txartelarekin:** 5 €. Bai entzunaretoan, bai interneten bidez erosita, gazte txartela aurkeztu beharko da txartel-leihatilan.
**Laguntzaileak:** Nafarroako Antzoki Sarea Elkartea (NAS) eta Nafarroako Gobernua.





### HIRI-DANTZA
**"Hipstory"**

BRODAS BROS

**IGANDEAN, ABENDUAK 12**

Hipstory ikuskizun ludiko eta didaktikoa da, 1960tik gaur egunera arteko hip-hoparen historia azaltzen duena, bai dantzarena, bai musikarena. Azalpen koreografikoen eta umorezko gagen bidez, bost dantzarik eta musikari batek honako estilo hauen arteko desberdintasunak erakusten dituzte: Popping, Locking, B-Boying... Beatbox, Scrath eta Funk musikaz ere solas eginen da (James Brown, Cool and The Gang, besteak beste).
**Ikusle guztientzat**. **Iraupena:** 50 minutu.
**Ordua:** 19:00.
**Aldez aurreko sarrerak:** 6 €.
**Txartel-leihatilako sarrerak:** 8 €.
**Sarrerak gazte txartelarekin:** 5 €. Bai entzunaretoan, bai interneten bidez erosita, gazte txartela aurkeztu beharko da txartel-leihatilan.
**Laguntzaileak:** Nafarroako Antzoki Sarea Elkartea (NAS) eta Nafarroako Gobernua.

# Arte Eszenikoak
## Karmengo entzunaretoan



**FAMILIA ANTZERKIA**
**"Pirados en la isla del tesoro"**
ILUNA PRODUKZIOAK

### IGANDEAN, ABENDUAK 19

**Interpretatzaileak:** David Larrea, Miguel Goikoetxandía.
Bi pirata zoro. Lapurtutako mapa bat. Uharte bat. Abentura honetan ezin izanen diozu barre egiteari eta abesteari utzi, zure laguntza ezinbestekoa baita altxorra lortzeko. "Altxorraren uhartea" klasikoaren berrikuspen bat, parte-hartzailea, ganberroa eta zuzeneko musikarekin. Gozatzeko, altxorrak aurkitzeko eta mundu berrietan igeri egiteko gogoa duten piratentzako abentura.
**Ikusleak:** Sendiak eta haurrak. **Iraupena:** 50 minutu.
**Ordua:** 18:00.
**Aldez aurreko sarrerak:** 3 €.
**Txartel-leihatilako sarrerak:** 5 €.
**Laguntzaileak:** Nafarroako Antzoki Sarea Elkartea (NAS) eta Nafarroako Gobernua.




**TXOTXONGILOEN ANTZERKIA**
**"Gorgorito y la hucha de Rosalinda"**
MAESE VILLAREJOREN TXOTXONGILOAK

### ASTEAZKENEAN, ABENDUAK 29

**Ikusleak:** Sendiak eta haurrak.
**Iraupena:** 60 minutu gutxi gorabehera.
**Ordua:** 18:00.
**Aldez aurreko sarrerak:** 3 €.
**Txartel-leihatilako sarrerak:** 5 €.
**Laguntzailea:** Nafarroako Gobernua.

# Zinema




**"¡SCOOBY!"**

### ASTEARTEAN, ABENDUAK 7

Scoobyk eta koadrilak beren misterio zailenari egin behar diote aurre: Cerbero txakur mamua askatzeko konplota.
**Ikusle guztientzat.** 9 urtetik beherakoaek helduek lagunduta joan behar dute.
**Iraupena:** 93 minutu.
**Ordua:** 18:00.
**Lekua:** Karmengo Entzunaretoa. **Sarrera:** 3 €.
**Laguntzailea:** Nafarroako Gobernua.

# Ipuin-kontalaria



**“CUENTOS CONTRA LAS CUERDAS”**
(Gaztelaniazko ipuin kontalaria)
SERGIO DE ANDRÉS

## ASTEARTEAN, ABENDUAK 14

A zer borroka ipuin hauekin!
Nork irabazi du? Erabaki ezazue zuek.




**“PLATERAREN ETA PLATERAREN ARTEAN, IPUINAK BARRURA”**
(Euskarazko ipuin kontalaria)
XABI ARTIEDA

## ASTEAZKENEAN, ABENDUAK 15

Martinen sukaldean ipuinak erre, gisatu, oratu, zatitu egiten dira. Batzuetan gordinik datoz! Baina beti daude zaporetsuak!




**“PELEA DE BOLAS DE NIEVE”**
(Gaztelaniazko ipuin kontalaria)
EVA AZPILIKUETA

## ASTEARTEAN, ABENDUAK 28

Ariren herrian aspaldian ez du elurrik egiten. Faltan botatzen du elurrarekin jolastea, panpinak egitea, malutak haizearekin hegan ikustea...

**Ikusleak:** 3 eta 8 urte bitarteko umeak. Adingabeei helduek lagundu behar diete.
**Doako sarrera** edukiera bete arte. Gonbidapenak aldez aurretik hartu behar dira.
**Ordua:** 18:30. **Iraupena:** 60 minutu gutxi gorabehera.
**Lekua:** Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxeko Erabilera Anitzeko Aretoa. **Laguntzailea:** Nafarroako Gobernua.

# Tailerra euskaraz



**TXOTXONGILO ETA ITZAL EUSKARAZKO TAILERRAK**

## AZAROAK 1, ASTEAZKENA

ZURRUNKA TEATRO
**Haurrendako** (5 urtetik aurrera gomendatuta).
**Iraupena:** 90 minutu. **Ordutegia:** 18:30etik 20:00etara.
**Sarrera:** Doan edukiera bete artean.
**Izen-emateak:** Kultura-etxeko Argibide Bulegoan edo emailez infocultura@sanguesa.es helbidean.
**Lekua:** Zangozako Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxeko Erabilera Anitzeko Aretoa.
**Antolatzailea:** Nafarroako Gobernua.
**Laguntzailea:** Zangozako Udala.

# Zangozako gaiteroak



**XABIERKO SAN FRANTZISKO EGUNEKO DIANAK**

**OSTIRALEAN, ABENDUAK 3**

Ibilbidea Zangozako Gaiteroen eskutik hiriko karrika eta plazetan zehar.
**Ordua:** 9:00.
**Antolatzaileak:** Zangozako Gaiteroak.

# Aldizkaria

**“Zangotzarra” kultura-aldizkariaren aurkezpena**

**OSTIRALEAN, ABENDUAK 10**

**Ordua:** 19:30.
**Lekua:** Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxeko Hitzaldi Aretoa.
**Antolatzailea:** Albreteko Enrique II. Kultura-taldea.

# Juan Francés de Iribarren Musika Eskola



**Zangozako “Juan Francés de Iribarren” Musika Eskolako ikasleen Ganbera-musikako kontzertua**

**ASTELEHENEAN, ABENDUAK 13**

**Ordua:** 19:30 h.
**Lekua:** Karmengo Entzunaretoa.

# Eguberria



**Zangozako Juan Francés de Iribarren Musika Eskolako Banda Txikiaren, Big-Banden eta Orkestraren Eguberriko Kontzertua**

**OSTEGUNEAN, ABENDUAK 16**

**Ordua:** 19:30.
**Lekua:** Karmengo Entzunaretoa.
**Antolatzailea:** Juan Francés de Iribarren Musika Eskola.



**Musika Eskolaren eta Udal Banda Elkartearen Gabon-kanta kalejira**

**OSTIRALEAN, ABENDUAK 17**

**Ordua:** 19:00.
**Antolatzailea:** Juan Francés de Iribarren Musika Eskola.

# Eguberria



### Nora Abesbatzaren kontzertua. Eguberriko Meza

**LARUNBATEAN, ABENDUAK 18**

**Ordua:** 19:00.
**Lekua:** Aita Kaputxinoen Eliza.
**Antolatzailea:** Nora Abesbatza.





### "El Belén Tradicional en Navarra" dokumentalaren proiekzioa eta jaiotzaren jatorriei buruzko hitzaldia

**OSTEGUNEAN, ABENDUAK 23**

2020an egindako dokumentala, Nafarroako hainbat herritako 20 pertsonaren testigantzak biltzen dituena, horietako 3 zangozarrak. Nafarroako gizartean jaiotzaren tradizioak duen garrantzi identitarioa nabarmentzen du.
**Ordua:** 19:00. **Lekua:** Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxeko Hitzaldi Aretoa. **Sarrera:** Doan edukiera bete artean eta gonbidapenak aldez aurretik hartuta.




### Olentzero

**OSTIRALEAN, ABENDUAK 24**

**18:15.** Ikastolatik irteera eta kalejira herriko txikiak bilduz.

**18:45.** Arkupeetako plazan txokolatada, gaztainak eta ardo errea.

**19:00.** Zanpantzarren deia Olentzeroren bila joateko, Xabierko errepidetik datorrena.

**19:30.** Olentzerori harrera eta jaia Arkupeetako plazan.

**Antolatzailea:** Zangozako Ikastola.



### Jaiotza  bedeinkatzea eta irekitzea

**OSTIRALEAN, ABENDUAK 24**

**Ordua:** 19:30.
**Lekua:** Abatetxeko Plaza.
**Antolatzailea:** Misterio de Reyes Elkartea.



### Gabonetako bermut musikala. Kalejira

**LARUNBATEAN, ABENDUAK 26**

Eguberriko egunetan, gabon-kanta tradizionalak izaten dira beti, eta Udal Bandak Zangozako karriketara hurbilduko du musika genero hau, proposamen herrikoi eta amerikarren sorta interesgarri baten bidez.
**Zuzendaria:** Javier Calvo Lerga.
**Ordua:** 12:30.
**Antolatzailea:** Zangozako Udal Banda Elkartea.